

FUNTSEZKO JARDUEREAK

Gure enpresak lan ona egin dadin eta modu eraginkorrean egiteko ere, faktore asko kontuan hartu behar ditugu, modu sortzailean eta deigarrian garatzeko. Modu honetan, gure gailu elektronikoak kalitate ona izango du, erosleak gure lanarekin eta eraginkortasunarekin pozik egonez.

Eguzki-argiaren bidez kargatzeko moduko bateria duen gailu elektronikoak aurkezteko dugun enpresarekin, erosleek gure produktuari buruz jakitea ezinbestekoa dela uste dugu. Hori dela eta, erraz erabiltzeko izango den web-gune bat egitea erabaki dugu, erosleek dituzten zalantzak argitu ditzaten. Era berean, aipatutako metodo honen bitartez, gure burua ezagutzera emateko eta gailuen merkatuan harrera ona izatea lortuko dugu.

Gure produktua ekoizteko, funtsezkoa izango da web orria sortzea; izan ere, bertan erosleak nahi duen mugikorra aukeratuko du eta horri, eguzki-plaka gehituko zaio, zeinek fabrika batera bidaliko dugun bere ekoizpenarako. Komunikazio-kanal hau sortzea funtsezkoa zen, batez ere, bezeroari zerbitzu ona eman diezaiozun; berez, eroslea arazoren bat izanez gero, modu honen bitartez lehenbailehen konpondu dezake. Era berean, bezeroa gure zerbitzuaz asetuta geratu beharko da; horrela, beste jendearekin elkartzerakoan ditugun erraztasunei buruz ondo hitz egitea eragingo luke. Izan ere, pozik egonez gero, etorkizunean gure dendara itzuliko lirateke.

Gure web orria: <https://sites.google.com/iesbalmasedabhi.com/azb/inicio>

Beste aldetik, enpresak saldutako produktuak izan ditzaketen arazoak konpontzeko gaitasuna izatea ezinbestekoa da. Sektore honetan hastean, kontuan hartzekoa izan zen produktu ona izan bazen ere, konponketa-zerbitzu ere behar zela. Hori dela eta, lehen aipatu dugun bezala, web-gune sortzea baita erabiltzea ere nahitaezkoa izan da. Modu honetan, erosketa-prozesua errazagoa izango da eta gurekin harremanetan jartzeko ere.